

Kutxabankek iaz 4,6 milioi kWh-ko energia aurreztu zuen

- **Aurreko urtean baino % 10 gutxiago da, eta hein handi batean Erakundearen sukurtsalen sare zabalean egindako erreforma integralengatik lortu da**
- **Beroketa eta hozte tenperaturak mugatzeko Gobernuak abuztuan onartutako aginduarengatik 654 mila kWh aurreztu ditu**

2023ko apirilaren 17an. 2022an zehar, Kutxabankek bere lan-zentroetan energia-kontsumoa **murritzeko** hainbat neurri ezartzen jarraitu zuen, Taldearen energia-eraginkortasuna hobetzeko.

Honela, sukurtsalen sare zabalean **erreforma integralak** egin dira, **klimatizazio-ekipoak** berriak dira eta datuak tratatzeko hiru CPD instalazioetako **hozte- eta hornidura elektriko-ekipoak** egokitu dira.

Horren guztiaren ondorioz, 2022an Taldearen energia-kontsumoa **4,6 milioi kWh murriztu** zen –1.300 etxebizitzak kontsumitzen dutena adina–, aurreko urtearekin alderatuta **% 9,7 jaitsita**.

Energiaren esparruan Kutxabankeko bulegoen sarean egin da ekimen handiena, isolatzaile termikoak hobetu baitira, argiztapena kontrolatzeko sistemak eta argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzeko sistemak jarri dira, edota igorpen termiko baxua eta isolamendu akustiko hobeak duten leiho eta ateak jarri dira, besteak beste.

Gaur egun, Kutxabank bere bulego-sarean **proiektu globala** garatzen ari da, eraikin nagusietan dagoeneko jarri eta probatutakoa, klimatizazioa, argiztapena eta berokuntza sistemak urruneko sistemen bitartez kontrolatu ahal izateko. Sistema honen bitartez, iaz 161 mila kWh elektrizitate aurreztu ziren guztira.

Berokuntza eta klimatizazio tenperatura mugatzeari dagokionez, Gobernu zentralak abuztuan agindutako neurriarengatik, **654 mila kWh** aurreztu ziren 2022an.

Kutxabankek sortzen dituen zuzeneko isurien bolumena ez da oso handia, baina Taldeak jabetzan dituen basoek aise konpentsatzen ditu. Kutxabankek **850 hektarea** baso kudeatzen ditu Bizkaian eta Gipuzkoan. Baso hauetan biodibertsitatean aberatsak diren hainbat ekosistema daude.

Kutxabankek ingurumen-politika instituzional oso aktiboa du, eta Ingurumeneko Jarduera Egokien Gida bat du, Kutxabanken lan egiten duten pertsona guztien sentsibilizazioa eta konpromisoa hobetzeko.

Gida honek ingurumen-inpaktua minimizatzen duten neurriak sustatzen ditu, energia-eraginkortasunaren, bereizketaren eta hondakinen kudeaketaren bidez, edo baliabide eta material gutxiago erabiltzea sustatuz, besteak beste.

Emisio gutxiko ekonomia baterako trantsizioan ere konpromiso nabarmena du Bankuak, finantzazioa ingurumen-inpaktua duten proiektuetara bideratzen baitu, jasangarritasun irizpideak biltzen dituen **kreditu-sailkapen** baten bidez.

Kutxabankek **naturarekiko errespetua sustatzen duen finantza produktuen katalogo zabala** du. Energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren etxebizitzak eskuratzea eta aseguratzea, ibilgailu elektriko eta hibridoak edo etxetresna elektriko eraginkorrak erostea errazten du. Gainera, bezero dituen enpresei ekonomia jasangarrira trantsizioa egiten laguntzen die, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak edo basoak babesteko enpresa-egiasmoak finantzatuz.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako banku nagusia da. 700 bulego baino gehiago ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulego sarea du eta Andaluzian, Madrilen eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gora osatzen dute Taldea. Europako ikuskatzaileen arabera gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.